

## HAUTAKETA PROZESUA

Bihotz Berdeak proiektuan izena eman aurretik, hautapen froga bat burutu behar duzu. (Aurrematrikula egiterakoan word dokumentua edo pdf-a erantsi beharko duzu.)

### Erantzun bi galdera hauei:

#### ZERGATIK IZAN NAHI DUZU BIHOTZ BERDEA?

Egin orrialde erdiko motibazio eskutitz bat. Norberak bere burua aurkeztu eta zergatik izan nahi duen Bihotz berdea idatzi beharko du.

#### ERANTZUN GALDETEGI HONI:

1. Eskuetan eduki al duzu inoiz xomorrerik? Zein?
2. Inoiz ikusi al duzu ugaztun baten aztarnarik?
3. Zein da zure ametsetako bidaia?
4. Zure gelan natur- elementurik ba al duzu? Lumak, xomorroak, hostoak, harriak...
5. Gustatuko al litzaizuke gau ilunean unibertsoa behatzera joatea? eta kobazulo bat esploratzea
6. Historiaurreko bizimodua ezagutzen duzu?
7. Animalia bat bihurtu nahiko bazenu, zein eta zergatik?
8. Ezagutzen al duzu naturalista baten izena?
9. Atsegin al duzu irakurtzea? Zein liburu mota atsegin duzu gehien?
10. Handitzean zer izatea gustatuko litzaizuke?

Aukeratu bi hauetatik froga bat eta burutu ezazu.

- a) 1 froga: Aukeratu hiru ugaztun hauetatik bat aukeratu (saguzarra, trikua edo urtxintxa). Non bizi da? Zertaz elikatzen da? Non egiten du bere etxetxoa? Zein materialekin? Joan zaitez basora, eraiki ezazu berari ondoen egokitzen den babesleku bat inguruko materialekin eta bidali argazki bat gure emailera.
- b) 2 froga: Egunsentian edo iluntze partean, hurbildu baso edo parke batera eta entzun ondo bertan dauden soinuak. Arreta jarri paisaiari, nolakoa den eta deskribatu entzuten eta ikusten duzun guztia. Nahi baduzu deskribapenean argazki edo ilustrazio batzuk gehitu ditzakezu.